



# Mungialdeko b e r b a k



Mungiaiko  
ikastetxeak



MUNGIA  
UDALA *astiane*

## Sarrera

Publikazio txiki honen helburua gure ondarearen parte bat batu eta gazteei zabaltzea izan da, hain zuzen bere, Mungialdeko berbak. Gaur egun letra idatziaren gizartean bizi garanez, emoten dau idazten ez danak ez daukala izaterik; halanda bere, gure eskualdeko berbeta honetan badira hainbat eta hainbat hitz, normalean idazten ez doguzan arren, berbaz egunero-egunero erabilten doguzanak. Berba horreetariko batzuk batzea izan da gure asmoa, ez hiztegi bat egitea. Ez, ez da hiztegi tradizionala: batetik, zerrenda honetan danatarik aurkituko dozu (izenak, estruktura gramatikalak, adibideak...) hiztegi arruntak baino kaotikoa da; eta bestetik, asko bere asmo apalagokoa da, ikasle eta irakasleei interesgarri iruditu jakezan berba batzuk baino ez dozuz aurkituko orriotan, asko eta asko falta dira. Izan bere, azkenengo orrialdeetan ikusiko dozunez, "Mungialdeko berbak" ez da hiztegi itxia, zerrenda idegia baino, norberak osatu eta aberastu beharrekoa.

Zure ekarpenak bialdu gura badeuskuzuz, idatzi helbide honetara: [euskera@mungia.org](mailto:euskera@mungia.org).

## Egileak

Testua: Mungiako Ikastetxeak (Bentades Ikastetxea, Larramendi Ikastola, Laukarizko Ikastetxea, Legardalde HI eta Mungiako Institutua) eta Mungiako Udala.

Marrazkiak: Kontxi Garai (Legardalde HI)

ZELAN IDATZI?

ZELAN ESATEN DOGU?

ESANGUREA

ESANGUREA



ABAZUZ(e)A

ABASUSEA



Inetasia,  
txingorra,  
kazkabarra.

ABROZIDU



ABROSIDU

Aspertu, gogaitu; gaztelaniatik dator, "aburridu" bezala. "Abroziduten egon=ernegetan egon". "Abroziduten nago, ez dakit gai hori gaintituko dodan ala ez".

ADABU(A)

ADAGUE,  
ADABUE

Petatxua, adabakia...azken horren aldakia izango da.  
"Horrentzako adaburik ez dozu topauko"=hori ezin izango dozu izkutatu edo disimulatu.

AFRUNTU(A)

AFRUNTUE

Jazarria, ekaitz-haizea. "Etxearen alde hori afruntuan dago eta ez da egokia aterpea egiteko bertan".

AGIRAKA EGIN

AGIRIKE EİÑ

Errieta egin, hasarre egin. "Ez egin agirikarik, ez dot apurtu eta".

AHUSPEZ

EUSPES

Ahoz behera. "Ahuspez lo egiteko ohitura dauka Mikelek".

AIDA!

AIDA!

Behi-aziendei aurrera egiteko esateko interjekzioa. Aurrera! Tira behia!

AIKO!; AIKO HOR!

AIKO!; AIKO HOR

Hara! Horra hor!  
Harridura; bakarrik zein esaldi barruan erabili daiteke: "Aiko hor nor etorri dan", "Aiko inuzentea!"

AKABO

AKABO

Ez dago zer eginik!, ez dago ezer egiterik! "Ez badeutsagu alkarri laguntzen, akabo!"

AKABUAN

AKABUEN

Azkenean, atzenean, amaieran. "Gogo handia euki dot, baina akabuan ez naz joan".

AKORDUAN EUKI

AKORDUAN EUKI

Gogoan euki, gogoratu, gomutatu. "Ondo akorduan daukat hona lehenengoz etorri ginanean".

ALOGER(A)

ALOGOREA,  
ALABORA

Lansaria.

ALOGERAKO(A)


ALOGOREKOA

Inork ordainduta behar egiten dauena.  
"Alogerakoa etxean sartzea akabu santua da".

ALBANDORRATZ(A)

ALBANDORROTZA,  
ALBONDORROTZA

Orratz luzea, gauza gogorak eta lodiak jostekoa (zakuak, koltxoiak...).






# ZELAN IDATZI? ZELAN ESATEN DOGU?

# ESANGUREA ESANGUREA

<b>ALBATE(A)</b>	<b>ALBATEA</b>	Gortako atea, albo batean dagoana.
<b>ALBAINU(A)</b>	<b>ALBIÑUA</b>	Firua. Arabiar jatorrikoa izan leiteke. "Albainu siku barik": busti-busti eginda, meleta, hondatuta.
<b>ALBOROKE(A)</b>	<b>ALBOKEA ABORKEA ALBOROKEA</b>	Auzo lana egin ondoren egiten dan jana, mesedea jaso duenak ordaintzen dauena. Mesedea ordaintzeko modu bat.
<b>ALDESTAIO</b>	<b>ALDESTAIO ALDESTAIRO</b>	Dana txarto egiten dauenari esaten jako, ordena bakoa. Desastrea. "Aldrebes jaió" izan leiteke berba honen jatorria.
<b>ALMANDRONGILA(K)</b>	<b>ALMANDRONGILLEK, ALMONDRONGILLEK</b>	Okela-pelotatuak (jatekoa). Garri bueltan sortzen diran okelei bere esaten jake. 
<b>ALPER-HARRI(A)</b>	<b>ALPER-ARRIE</b>	Soloa lisatzeko eta gogortzeko erabilten dan harri biribila. Errepideetan erabilten dan makinari "txilindro" esaten jake.
<b>AMATATU, AMATAU</b>	<b>AMATAU, AMATEU</b>	Itzali. Gaztelania zaharretik, "amatar" berbatik etorriko da seguru antzean.
<b>AMORRU(A)</b>	<b>AMORRUA</b>	Haserre bizia, gorrotoa, etsipenaren seinalea. Zeozer amorratuta egin, jan, irakurri...: gogo itzelagaz egiten danean esaten da.
<b>ANBULU(A)</b>	<b>ANBULUE</b>	Troinua, korapiloa. 
<b>ANDAPULANO</b>	<b>ANDAPULANO</b>	Momentu egokian agertzen dana. "Aipatu eta andapulano atean".
<b>ANDEROLE(A)</b>	<b>ANDAROLEA, ANDEROLEA</b>	Andaria. Enterru edo hileta baten hilkutxa edo kajea eroaten dauenari deritxo.
<b>ANDRADA</b>	<b>ANDRADA</b>	Iraina da, ez dauka esanahi zehatzik. "Isilik hago, andrada hori".
<b>ANDRA-HAIZE</b>	<b>ANDRAISEA</b>	Ipar-haizea.
<b>APUR(RAK)</b>	<b>ANPURREK</b>	Ogi-zaborrak, ogi-birrinak.
<b>ANTIOJU(AK)</b>	<b>ANTIJUEK</b>	 Betaurrekoak.
<b>ANTOJUGARRI(A)</b>	<b>ANTOJUGARRIE, ANTOJAGARRIA</b>	Nazkagarria, nazka emoten dauena. "Antojugarria zara"
<b>APAREJU(A)</b>	<b>APARAJUE</b>	Pertsona batzuei deitzeko erabilten da, elementu onak ez dirala esateko. "Apareju ona eginda zagoz zu", "Apareju ederra hori".

**ZELAN IDATZI?****ZELAN ESATEN DOGU?****ESANGUREA**  
**ESANGUREA**

<b>APARAU</b>	<b>APAREU</b>	Erdi-erdian jo, azartau.
<b>APATXAK</b>	<b>APATXAK</b>	Animalia batzuen hanka puntak (astoa, behia, ardia, etab). Pertsonen oinei bere esaten jake lohi-edo egon ezkeru.
<b>APATX</b>	<b>APATXI</b> <b>APATXE</b>	Jesarri (ume hizkeran). "apatx egin hementxe".
<b>ARATINIK</b>	<b>ARATIÑIK</b> <b>ARATIÑES</b>	Itxunduta, gora adi. Ahuspez berbearen kontrakoa. "Aratinik jausi".
<b>AREAN</b>	<b>AREAN</b>	Zeozer, zerbait. "Arean bere ez"= bapere ez, ezer bere ez. "Arean bai"= zeozer-zeozer bai. Areantxu.
<b>ARMIN/ARBIN</b>	<b>ARMIÑ, ARBIÑ</b>	Egonezinik, urduri, haserre. "Arbin dago"
<b>ARMOZU(A)</b>	<b>ARMOSUE</b> <b>ARMUSUE</b>	Gosaria, barauskarria.
<b>ARRAKAD(e)A</b>	<b>ARRAKADEA</b>	Belarritakoa.
<b>ARRAKAL(e)A</b>	<b>ARRAKALEA</b>	Urratua, pitzadura, artesia.
<b>ARREKIKILI</b>	<b>ARREKIKILI</b>	Pertsona batek bestea lepoan edo txikoan daroanean. Arretxiko.
<b>ARTEAK HARTU</b>	<b>ARTEAK ARTU</b>	Lasaitu. "Hartuizuz arteak, andrea!", "Arteak hartu ezinik dago".
<b>ARTZ(e)A</b>	<b>ARTZEA</b>	Bahea. Indabak garbitzeko egurrezko tresnea.
<b>ASAGO</b>	<b>ASAO, ASAU</b>	Urrun, urruti. "Asago barik= paraje".
<b>ASTEGUN(A)</b>	<b>ASTAGUNE,</b> <b>ASTEGUNE</b>	Laneguna. Jai ez diran asteko egunak. "Asteguneko erropak jantzita joan zan jaialdira".
<b>ASTELEHEN(A),</b> <b>MARTITZEN(A),</b> <b>EGUAZTEN(A),</b> <b>EGUEN(A),</b> <b>BARIKU(A),</b> <b>ZAPATU(A),</b> <b>DOMEK(e)A</b>	<b>ASTELEHENA,</b> <b>MARTITZENA,</b> <b>EGUASTENA,</b> <b>EGUENA,</b> <b>BARIKUE,</b> <b>ZAPATUE,</b> <b>DOMEKEA</b>	Asteko egunen izenak.
<b>ASTO(A)</b>	<b>ASTOA</b>	Euskarri mota bat.
<b>ASTOPOTRO(A)</b>	<b>ASTOPOTROA</b>	Astokiloa, astopetrolioia.
<b>ATARTE(A)</b>	<b>ETARTEA</b>	Sarrerea, portalea.





# ZELAN IDATZI? ZELAN ESATEN DOGU?

# ESANGUREA ESANGUREA

<b>ATAZ(e)A</b>	<b>ATAZEA</b>	Eginbeharreko astuna; ardurea. "Zelango atazea!", "Ataza bategaz biak egingo dodaz", "Atazea kendu".
<b>ATOAN</b>	<b>ATOAN</b>	Momentuan, laster baten.
<b>ATSOKERIA</b>	<b>ATXOKERIE</b>	Zaharraren koplak. Atso-ipuina.
<b>ATZEKOZ AURRERA</b>	<b>ATZEKOS AURRERA</b>	Aldrebes, kontrara, alderantziz; atzekoa aurretik iminita.
<b>AURBEHER(e)A</b>	<b>EURBEREA, AURBEREA</b>	Aldapa behera, aldasbehera. "Jatatik behera aurbehera itzela dago".
<b>AURKI</b>	<b>AURKI</b>	Antza, antza danez, nonbait. "-Auzokoari loteriak urten ei deutso. -Bai aurki".
<b>AURKI(A)</b>	<b>AURKIE</b>	Jesarleku txikia.
<b>AZKENEAN</b>	<b>ASKANE(A)N</b>	Partikula berezia. Azkueren hiztegian honakoa agertzen da: "azkanen buruan": al fin y al cabo; "halanda bere"ren parekoa bere izaten da, baina espresibididade handikoa. "Erosi hainbat erosi dogu, baina nik neuk ez dot ekarri dirurik, eta zeuk bere ez daukazu, azkanean!"
<b>AZPIKOZ GANERA</b>	<b>ASPIKOS GANERA</b>	Aldrebes, kontrara, alderantziz.
<b>AZPIR(e)A</b>	<b>ASPIREA</b>	Arto-uruna, taloa eta abar gordetako altzaria.
<b>AZUNBRE(A)</b>	<b>ASUNBREA</b>	Litro biko neurria, esnea neurtzeko sano erabilia. Hortik dator "kuartillo eta erdiko botila"ren neurria: laurdena = litro erdi eta honen erdia 250 cl, guztira 750cl.



<b>BAKEZKO(A)</b>	<b>BAKESKOA</b>	Ona, baketsua. "Horreek zaratok ez dira bakezkoak".
<b>BARAGARRI(A)</b>	<b>BARAGARRIE</b>	Barregarria, desegokia.
<b>BARAND(e)A</b>	<b>BARANDEA</b>	Balkoia, erropak sikatzeko kordela.
<b>BARAUSI(A)</b>	<b>BAROSIE</b>	Armozua, gosaria. Barau hausi=des-ayuno.
<b>BARRABAS(A)</b>	<b>BARRABASA</b>	Demoninoa, bihurria. "Horrek ume horrek barrabasak daukaz".
<b>BARRIKETAN</b>	<b>BARRIKETAN</b>	Berbetan, esamesaka.
<b>BARRUNTATU, BARRUNTAU</b>	<b>BARRUNTAU, BARRUNTEU</b>	Asmau, entzun, igarri, sentidu.
<b>BEGI-NABAR(RA)</b>	<b>BEGINABARRA</b>	Kolore argiko begiak dituana. Begi-zuria.
<b>BEGIRA EGON</b>	<b>BEGIRE EGON</b>	Zain, itxaroten egon. NOREN kasuan erabilten da: "Amaren begira nago".




ZELAN IDATZI?

ZELAN ESATEN DOGU?

ESANGUREA  
ESANGUREA

<b>(BEHI) ANTZU(A)</b>	<b>(BEI) ANTZUE, (BEI) ANTZITUE</b>	Esnerik emoten ez dauen behi sikatua. Umerik barruan ez daukana. Antzurik dago=barruan umerik ez daukana.
<b>BEILEGI(A)</b>	<b>BELLEIE, BALLEIE</b>	Horia. Beilegizta=beilegi antzekoa.
<b>BELU</b>	<b>BELU</b>	Berandu. Belu barik=laster.
<b>BERESI(A)</b>	<b>BERESIE</b>	Era guztietako arbolak eta landarak hazten diran lekuari deritxo. Berez hazia. Gaztelaniazko "jaral"edo "jaro".
<b>BINKE!</b>	<b>BINKE!</b>	Inork esan dauenari arrazoia emoteko esakunea. Bai horixe!
<b>BIHORKAD(e)A</b>	<b>BIORKADEA</b>	Gorputz atalen baten okerdura, bihurritua. "Bihorkadea egin dot orkatilean".
<b>BIRO(A)</b>	<b>BIROA</b>	Hegaztien samea. Pertsonentzat bere zabaldu da. "Birotik heltzen badeutsut". "Biroa bete"=jan
<b>BITS(A)</b>	<b>BITZE</b>	1) Aparra; likido gehienek eukiten dabe. "Bits-ura=jaboi-ura". 2) Esnegaina edo esne-telea. 3) Adurra. "Adurra dariola dagoz umeari adi".
<b>BITZUK</b>	<b>BITZUK</b>	"Batzuk"en plurala. "Batzuk goitik datoz, beste batzuk behetik eta bitzuk udaletxearen aurrean elkartuko dira." "Biak" berbea indartuta.
<b>BOGAD(e)A</b>	<b>BOGADEA</b>	Erropa multzoa, garbirik harakoa edo garbitzeko dagoana.
<b>BOTA AHALA</b>	<b>BOTAALA</b>	Bota eta bota (euria adibidez). "Goizaldean euria bota ahala izan da".
<b>BRINTZ(e)A</b>	<b>BRINTZEA</b>	Zerbaiten zati txikia eta bereizia. "Brintzea (arantzea) sartu dot atzamarrean", "brintzea lotu jata hagin artean".
<b>BRUS(A) BURRUS(e)A</b>	<b>BRUSE BURRUSEA</b>	Alkondara luzea eta zabala, ganetik eroaten dana. (Janzkera tradizionala, gaur egun feria edo jai egunetan erabiltzen dana). Gazteleraizko "blusa" berbatik dator.
<b>BURDUNTZALI(A)</b>	<b>BURDUNTZALIE</b>	Koilara handi-handia, kazoa, kutxera.
<b>BURUTO</b>	<b>BURUTO</b>	Buru handia daukana, tamainuz eta izakeraz.
<b>BUZTARRI(A)</b>	<b>BUSTERRIE</b>	Idiak lotzeko tresnea.





# ZELAN IDATZI? ZELAN ESATEN DOGU?

# ESANGUREA ESANGUREA

<b>DANDARREZ</b>	<b>DANDARRES</b>	Narras, arrastaka, tatarrez.
<b>DAN GINOAN</b>	<b>DANGIÑOAN</b>	Zeozar (leioa, atea) ahal dan beste zabaldu, idegi edo bete. "Atea dan ginoan dago zabalik".
<b>DERDITXADU(A)</b>	<b>DERDITXEDUE</b>	Ugari, asko. "Euri zaparrada derdixadua egin dau hemen".
<b>DINDIRRI(A)</b>	<b>DINDIRRIE</b>	1) Erdi soltuan eta dandarrez eroten dan zeozaren zati bat. 2) Gorputz atalen batetik ateratzen dan likidoa. "Behiak dindirria botaten dau txahala egin aurretik".
<b>DURDURA-BEDAR(RA)</b>	<b>IURDURE-BEDARRA</b>	Migurea. Gaztelarazko "muérdago".
<b>DURUNDU(A)</b>	<b>DURUNDUE</b>	Zaratea. Durundia, oihartzuna. "Buruko durunduak egonezin itzela egin deust!"



<b>ERATSI</b>	<b>EDATZI, ERATZI</b>	(Behiak, ardiak, ahuntzak...) jatsi, batu. "Jatsi, arazi= e-ra-tsi". Gaztelaraz "ordeñar".
<b>EKINEAN</b>	<b>EKIÑEAN</b>	1) Jo eta ke aritzea. "Ekinean dabil". 2) Txarto esaten, esamesaka. "Gazteak gurasoakaitik ekinean ibiltzen dira".
<b>ENBATA</b>	<b>ENBATA</b>	Lainoa, zarragoza.
<b>ENTRAM(e)A</b>	<b>ENTRAMEA</b>	Jateko gogoa, apetitua. "Horrek dauka entramea!"
<b>EPERTERRE(A)</b>	<b>EPERTERREA</b>	1) Eperdi errea. 2) Pertsona larria, geldi egon ezin dana.
<b>ERDU. ERDUZE</b>	<b>ERDU. ERDUZE</b>	Etorri zaitetz. Etorri zaitetez.
<b>ERLUZETAN</b>	<b>ERLUXETAN, ERLUSTEN</b>	Garbi-garbi. Dirdiratsu, brillutan.
<b>ERNEGATU, ERNEGAU</b>	<b>ERNEGATU, ERNEGEU</b>	Larritu, estutu, haserretu.
<b>EROSTA</b>	<b>EROSTA</b>	Aienea, kexua, alaraua. "Txakur erostak entzun dodaz gauean".
<b>ERRABIO EGUNA</b>	<b>ARRABIO EGUNE</b>	Inauteri egunari esaten jako. "Día de hacer rabiar".
<b>ERRALDE(A)</b>	<b>ERRALDEA</b>	5 Kg-ko neurria. Animaliak pisatzeko erabilten da. Pertsonakaz bere erabilten da (irudi metaforikoa). "Horrek ez dau erralde askorik". Arroa=Ganadua pisatzeko erabilten zan 12,5 kilo pasatzeko neurria. Lekutik lekura aldatu egiten da.
<b>ERREBESU(A) ERREBESA(T)U</b>	<b>ERREBESUE, ERREBASUE ERREBESEU, ERREBASAU</b>	Bota, ok(a) egin, gonbitau. "Kotxetik urten dauenean errebesuka hasi da".



ZELAN IDATZI?

ZELAN ESATEN DOGU?

ESANGUREA  
ESANGUREA

ERREKADU(AK)

ERREKADUEK

Erosketak, mandatuak.

ERRIETAN

ERRIETAN

1) Burrukan. Errietan egin, ibili, hasi...  
2) "Errietan egin" Agiraka egin, haserre egin.

ESKANDALU(A)

ESKANDALUE

Asko, exajerazinoa. "Zenbat lagun batu zarie? Eskandalua!"

ESKASTU

ESKASTU

Gitxitu, urritu, mehatzu. Gaztelaniazko "escaso" berbatik dator.

EZKARATZ(A)

ESKATZA

Sukaldea, suetea.

EZKERO

ESKERO(N)

-ez gero, baldin ba-.

ESKUSAU(A)

ESKUSADUE,  
ESKUSAUE

Komuna.

ESTADUAN EGON

ESTADUEN EGON

Haurdun egon. Gaztelaniaz "estar en estado de buena esperanza" esaten da.

EZAGUN(A)

ESUNE

"Ezagun dozu aurpegian lo askorik egin ez dozuna!"

EZAGUN IZAN

ESUN IXEN

ETXATZE(A)

ETZATZEA

Baserriaren atzeko alde. Zeozer hankaz gora dagoanean bere esaten da: "Hau da etxatzea!!"

EUTSI

ETZI, AUTZI

Hartuizu.

EZO

EZO

Heze, busti, ezko, umel.

FALTRIKER(e)

PARTIKEREA,  
FARTIKEREA

Poltsikoa.



FATXAD(e)A

FATXADEA

Itxurea. "Horrek dauka fatxadea!"

FIGUREA

FIGUREA

Itxura txarra edo eskasa: "Hori da daukazun figurea"

FRANKO

FRANKO

Asko, ugari.

FUSTE(A)

FUSTEA

Ganorea, sustantzia, sustraia, trentina. "Horrek ez dauka ez usterik eta ez fusterik".

GALBAN(e)A

GALBANEA

Alperkeria.


GALANT(A)

GALANTA

Handia, nagusia.

GALAPAN

GALAPAN

Karraderan,  
korrika,  
andaran.

GAN(e)A

GANEA

Ezten, akuluaren puntako untzea.

GANEAN

GANEAN

"Ganean" formaren aldakia.

GANOR(e)A

GANORA

Sustantzia, trentina. Ganorabakoa=sustantziarik ez daukana.

GARANDU

GARANDU

Aletu, bihitu. "Indabak garandu".





# ZELAN IDATZI? ZELAN ESATEN DOGU?

# ESANGUREA ESANGUREA

<b>GARAITIKOAK</b>	<b>GARITAKOAK, GARITXEKOAK</b>	Gainontzekoak, ganerakoak. "Garaitu" aditzak jatorri bera dauka.
<b>GARAU(A)</b>	<b>GAROA</b>	1) Azaleko tundurra, gatxa. 2) Alea. "Berakatz garoa. Mahats garoa. Arrautza garoa".
<b>GARO(A)</b>	<b>GAROA</b>	Goizeko lanbroa, bedarra bustiten dauena.
<b>GARRAZTUTA</b>	<b>GARRASTUTE</b>	Alperrik galduta (edariak: ardaoa, esnea...).
<b>GATZUN-ASK(e)A</b>	<b>GASUN ASKEA</b>	Txarriaren okelea gatzetan gordeteko lekua.
<b>GAUZAEZTAN(A)</b>	<b>GAUESTANA</b>	Ganorabakoa, ezertarako gauza ez dana.
<b>GEDARREZ /DEADARREZ</b>	<b>GEDARRES</b>	Deika, oihuka, agirika, errietan.
<b>GESU BATEN</b>	<b>GESU BATEN, GEISU BATEN</b>	Laster, laster barru.
<b>GINARR(e)A</b>	<b>GIÑARREA</b>	Erratza.
<b>GIRRIK(e)A</b>	<b>GIRRIK(e)A</b>	Oihu (izatez, txarrien, zaldien oihua da, baina zabaldu egin da beste eremu batzuetara).
<b>GIZALAN(A)</b>	<b>GISELANA</b>	Azalera neurtzeko unidatea. Gizalan 1 =380m2 inguru. Gaztelaniazko "peonada".
<b>GOBERNAU</b>	<b>GOBERNAU</b>	Kargu egin, jagon, hazi. "Nork gobernauko dau etxea?"
<b>GORANZKO(A)</b>	<b>GORAZKOA</b>	Korrozkadea.
<b>GORGUIL(A)</b>	<b>GORGUILLE</b>	Animalien samearen parte bat, zintzurra dagoan lekua.
<b>GRINISTUKA</b>	<b>GRIÑISTUKA</b>	Oihuka.
<b>Galdetzaila + GURA</b>	<b>Galdetzaila +GURE</b>	NORGURA= edonor; NOIZGURA=edonoz; NONGURA= edonon; NORAGURA= edonora; ZERGURA= edozer; ZENBAT-GURA= gura dan beste.
<b>GURATA</b>	<b>GURETA</b>	Nahita.



<b>HALANDA ZE</b>	<b>ALANDASE</b>	Horregaitik, horren ondorioz.
<b>HANDIKERIATAN</b>	<b>ANDIKERIETAN, ANDIKERITXAN</b>	Handinahian, nagusien gauzak egiten ibili.
<b>HAOR/HAORI</b>	<b>AOR/AORI</b>	Forma indartuak. Horra hor, Aiko hor. "Haor daukazu, aurre-aurrean"; "Haori da lehen esan deusudan autoa".
<b>HONDINO(KARREN)</b>	<b>ONDINO(KARREN)</b>	Oraindik. "Zagoz trankil, hondinokarren laurak bere ez dira-eta".
<b>HONTXE</b>	<b>ONTXE</b>	Oraintxe. "Urten egin dot. Hontxe etorriko naz atzera".

ZELAN IDATZI?

ZELAN ESATEN DOGU?

ESANGUREA  
ESANGUREA

IDEGI, EDEGI	IDI, IRI, EDEI	Ireki.
IDUN(A)	IDUNE	Samea. Hortik dator "idunekoa".
IRETARGI(A)	I(RE)TARGIE, IGETARGIE	Ilargia.
IGURDI	IGURDI	Igurtzi.
HIL-KANPAI(AK)	IL-KANPAK	Herrian nonor hiltzen danean kanpai-hots berezia ateraten da.
INIZITU(A)	IÑESTUE, IÑESETUE	Tximista, justuria.
INETASI(A)	IÑETASIE	Kazkabarra, harria, txingorra, abazuza.
INKAU	INKETU, INKEU	Zeozeri sakatu, indarra eginda nonon sartu.
HUNTZORRI(A)	INTZURRIA	Huntza; horman gora egiten dauen landarea.
IPITU	IPITU, IPITTU	Ganorea, sustantzia, fundamentoa. "Ipitu gitxikoa da hori". "Ez daukat gaur ezertarako ipiturik".
IZARRIK	IXARRIK	Esna, esnatuta, itzarrik.
IZUR(RAK)	ISURREK	1) Erropetan apropos zein gura barik egiten diran tolesdurak. "Frunce" edo "pliegue". "Izurrez beteko goena". 2) Tximurrak.
IZUTUTA	ISUTUTE	Izuaren izuaz bere onetik aterata. Bildurtuta, asustauta. "Justuriagaz kortako animaliak izututa dagoz".
ITOGIN(A)	ITTUGIÑE, ITOKIÑE	Tetxuko zuloa, ura pasetan ixten dauena.
ISIOTU	IXETU	Biztu.



JAGI	JAGI	Nonondik altzatu/altxatu.
JAKAN(A)	JAKANA	Gitxi eta txarto jaten dauena. "Jakan hutsa da gure umea".
JANGONEKO	JANGONEKO	Asmatutako munduan, gurako leuke horrek. "Jangonekoko markesa da hori" izango baleu, egingo leuke.
JUBOI(A)	JUGOIA	Barruko goiko erropea. Gaztelaniazko "jubón" berbatik dator.
JUSTURI(A)	JUSTURIE	Tximista, inizitua, oinaztarria.




KADERA(K)	KADERA(K), KADARA(K)	Oinak. "Kaderetako mina".
KAKA-ZIRIN(A)	KAKASIRIÑE	Beheranzkoa.
KARGU EGIN	Gobernau, jagon, kasu egin	NORI kasua hartzen dau. "Egin kargu esnari ganezka egin ze daian". "Egiozu kargu umeari".



# ZELAN IDATZI? ZELAN ESATEN DOGU?

# ESANGUREA ESANGUREA

<b>KARRADERAN</b>	<b>KARRADERAN</b>	Korrika, galapan, andaran, prisaka.
<b>KARRAJU(A)</b>	<b>KARRAJUE, KARREJUA</b>	1) Baserrietan suetetik gortara bitartean dagoan pasabidea. 2) Idi probetako ibilgua.
<b>KARRETILA</b>	<b>KARRETXILLE, KARROTXILLE</b>	Gaztelaniazko "carretilla"ren moldaketa.
<b>KAUSKITU</b>	<b>KAUSKITU</b>	Haginka egin, kausk egin. Hots-hitza da.
<b>KATIGATU, KATIGAU</b>	<b>KATIATU, KATIKETU, KATIRETU</b>	Soka edo halakoren batean lotuta geratu. "Kate" hitzetik dator, katean lotu. "Enredarse, engancharse". "Sasiartetik pasau eta bertan katigatu jat gonea".
<b>KIKAR(e)A</b>	<b>TXIKEREA</b>	Taza txikitxua.
<b>KILIN-KOLON</b>	<b>KILIN-KOLON</b>	"Kili-kolo"ren aldakia.
<b>KINA(t)U</b>	<b>KIÑEU, KIÑA</b>	1) Zorrotza dan zezegaz akuilatu, haragian sartu (zerbait egin dezan). 2) Bultzatu, zirikatu, zerbait egiten bultzatu.
<b>KIRKIL(A)</b>	<b>KIRKILA</b>	Kilkerra, txirri-txirria.
<b>KIRTEN(A)</b>	<b>KIRTENA</b>	Heldulekua (sartenarena edo beste tresna batena).
<b>KISKET(A)</b>	<b>KISKETA</b>	Atea zabaltzeko erabilten dan eskukoa.
<b>KOITADU(A)</b>	<b>KOITTEDUE</b>	Gizajo, errukarri; eskasa. Modu eskasari bere esaten jako: "Ibilkera koitadua dauka horrek".
<b>KOIU</b>	<b>KOIU</b>	Hartu.
<b>KOPIN(A)</b>	<b>KOPIÑE</b>	Pertsona apaina, elegantea, arteza eta ondo jantzia.
<b>KOPAU(A)</b>	<b>KOPUE</b>	Janari txiki eta arina. "Koaputxu bat janda, lanari ekin eutsan".
<b>KORRONTZI</b>	<b>KORRONTZI</b>	Kaka-zirina, pirria.
<b>KOTXET EGIN</b>	<b>KOTXET EGIN</b>	Bete-bete egin edo asko jan ostean. "kotxet nago": ok eginda nago.
<b>KOTXO(A)</b>	<b>KOTXOA</b>	Zenbait elikagairi barruan egiten jaken harra.
<b>KUKUKA</b>	<b>KUKUKE</b>	Zerbaiti ezkutuko lekutik begiratu. "Kuku bat egingo deutsut ea zelan zabilzen": bisitan joango naiatzu, baina sartu-urtena baino ez da izango.



**LABAN EGIN**

**LABAN EIÑ**

Laprast egin, irrist egin.

**LANTZAR(RA)**

**LANTZARRA**

Bedarrez beteko lur-saila, landuten ez dana.



<b>LANTZEAN BEHINEAN</b>	<b>LANTZEMIÑE(T)AN, LANTZINBIÑETAN</b>	Noizean behin, batzuetan.
<b>LAPRAST EGIN</b>	<b>LAPRAST EIÑ</b>	Laban egin, irrist egin.
<b>LARAKO(A)</b>	<b>LARAKUE</b>	Gurdiak ihes egin ez egiteko palua.
<b>LARATZU</b>	<b>LARATZUE</b>	Beheko suko kako moduko bat galdareari eusteko erabilten dana.
<b>LASKI(A)</b>	<b>LASKIA</b>	Desordenatua, itxura edota gauzak zaintzen ez dituana.
<b>LASKITU</b>	<b>LASKITTU</b>	Desordenatu, nahastu.
<b>LASTATEGI(A)/ LASTEGI(A)</b>	<b>LASTATEGIE/ LASTEGIE</b>	Lastoa eta galtzua gordeten dan gortaren goiko aldea.
<b>LEIXIB(e)A</b>	<b>LEIXIBEA</b>	Garbitu barri dagoan erropa moltzoa (bogadea).
<b>LEBA(RIK)</b>	<b>LEBA(RIK)</b>	Garrantzi(rik), ardura(rik), ezezko esaldietan (galderetan bere bai). “Ez deust lebarik”, “Ez dauka lebarik”, “Badeutsu lebarik ala?”, “Leba deutsu?”
<b>LORRINDU</b>	<b>LORRINDU, LORRINDDU</b>	Kakaztu.
<b>LORRIN(A)</b>	<b>LORRIÑE</b>	1) Eguraldi euritsua. 2) Landareei egualdiaren erruz sartzen jaken gaixotasuna.
<b>LOTU</b>	<b>LOTU</b>	Gelditu, geratu. “Gaur etxean lotuko naz” “Lotu zara inogaz gaur ala?” “Zertan lotu zarie ba?”
<b>LUKI(A)</b>	<b>LUKIE</b>	Azeria, azagarria.
<b>LUPETZ(A)</b>	<b>LUPETZA</b>	Basea eta basatza.
<b>LURRA JORRATU</b>	<b>LURRE JORRATU</b>	Lurra landu.

<b>MADARIKATU(A)</b>	<b>MADARIKATUE</b>	Barrabana. “Gizon madarikatua!”
<b>MAINAK EGIN</b>	<b>MAÑEK EIÑ</b>	Kapritxoarren negar egitea.
<b>MAMARROA</b>	<b>MAMARROA</b>	Umeak bildurtuten dituana, papaoa.
<b>MAILUKI(A)</b>	<b>MAILLUKIE</b>	Marrubiak.
<b>MAKAL(IK)</b>	<b>MAKAL(IK)</b>	Gaixorik.
<b>MAKAR(RA)</b>	<b>MAKARRA</b>	1) Txikia, argala (pertsonak eta ganadua). “Mutil makarra”. 2) Bardingoa (umeei esaten jake, ume barik gaztetxu diranean). “Ume bardingoa”.
<b>MAKER(e)A</b>	<b>MAKEREA</b>	1) Txarri emea. 2) Zikina, gari-garbia ez dana (pertsonei esaten jake, aurreko adieratik zabalduta).
<b>MAKULU(AK)</b>	<b>MAKULUEK</b>	Hankak txarto euki ezkerro, ibiltzen laguntzeko erabilten diranak. Gaur egun “muleta”k dira, baina berba hau gaztelaniazko “baculo”tik etorriko da, seguru antzean.





# ZELAN IDATZI? ZELAN ESATEN DOGU?

# ESANGUREA ESANGUREA

<b>MAKUTO(A)</b>	<b>MAKUTOA, masuto</b>	Egur mokorrek txikitzeko erabilten dan trontza. Makila luzea eta punta zabalerara beste makil lodiago bat.
<b>MAMAL(e)A</b>	<b>MAMALEA</b>	Emakumeentzako iraina. Torpea, gauzak ondo egiten ez dituana. Azkuek “mamarra” dakar.
<b>MANTAR(RAK)</b>	<b>MANTARRAK</b>	Erropa zaharrak, trapuak. Iraina bere bada: “Txarri mantarrok”.
<b>MARITXU-TEILATUKO</b>	<b>MARITXU-TEILLETAKO, MARITXU-TALLETAKO</b>	Marigorringo. “Maritxu-teilatuko gona gorriduna, e(u)tsi hagin zaharra eta ekarri barria”.
<b>MASKELU(A)</b>	<b>MASKELUE</b>	Esnea edateko katilua.
<b>MATRAK(e)A</b>	<b>MATRAKEA</b>	1) Istilua, nahastea, zalaparta; haserrea, eztabaida. “Matrakan ibili”: haserre egon, agirika ibili. 2) Karraka (Azkue).
<b>MATXALEN(TXU)</b>	<b>MATXALEN(TXU)</b>	Bandera, txatxala.
<b>MAUTXI</b>	<b>MAUTXI</b>	Neska txikientzako iraina. Leku desegokian dagoana, enbarazuan.
<b>MEHATZ</b>	<b>MEATZ</b>	Sakabanatuta, gitxi (ale batetik bestera tarte handia dagoala). Batez bere, landareak, ulea...
<b>MEKO(A)</b>	<b>MEKOA</b>	Argala, eskasa, ezereza.
<b>MELOKOTOI(A)</b>	<b>MILLEKOTA</b>	Mertxika.
<b>MIGUR(e)A</b>	<b>BIGUREA</b>	Zuhaitz zaharretan ateraten dan landara parasittoa. Mihura. Gaztelaniaz “muerdago”.
<b>MIRA EGIN</b>	<b>MIRE EIÑ</b>	Harritu. Latinezko “miro -are”, gaztelaniaz “admirar” emon dauena. “Mira egin deust etorri ez izanak”.
<b>MIZKATU(A)</b>	<b>MISKETUE</b>	Kapritxo asko dituana.
<b>MIZKINA</b>	<b>MISKIÑA</b>	Jan txarrekoa, edozer jaten ez dauena.
<b>MISTO(AK)</b>	<b>MISTOAK</b>	Pospoloak.
<b>MOKIL(A)</b>	<b>MOKILLE</b>	Lur zatia, mokorra.
<b>MOKO PAINELU(A)</b>	<b>MOKOPAÑELUE</b>	Musuzapia.
<b>MOROKIL(A)</b>	<b>MOROKILLE</b>	Arto urunez egindako papillea.
<b>MORROI(A)</b>	<b>MORROIE</b>	Mutikoa, gizona.
<b>MOTXORTUTA</b>	<b>MOTXORTUTE</b>	Haserretuta. Azkuek “motzor” dauka batuta eta gazteleraizko “tosco” dala esaten dau.
<b>MUN(e)A</b>	<b>MUNEA</b>	Bide edo solo bazterra, arean altutxuagoa. Mungia herriaren izena “mune+gana”tik ei dator
<b>MURKO(A)</b>	<b>MURKOA</b>	Astokiloa, oso fina ez dana.
<b>MUSKIL(A)</b>	<b>MUSKILLE</b>	Frutearen hondakina, barruko zati gogorra (sagarrak, madariak, piperrak...)
<b>MUSTURTU</b>	<b>MUSTURTU</b>	Musturrak (muturrak) jarri, haserretu.



<b>NAHIA</b>	<b>NEIE</b>	Zenbatgura; gura dan beste. Nahia egin/eragin: Gogaitu: "Nahia eginda nago / naukazu", "Nahia eragin deust".
<b>NARRU(A)</b>	<b>NARRUE</b>	Azala.
<b>NAHASTE-BORRASTE(A)</b>	<b>NASTE-PORRASTE(A)</b>	Nahastea, nahasketa.
<b>NONTZEBARRI(A)</b>	<b>NONTZEBARRIE NUNTZEBARRIE</b>	Barritsua.

<b>HOPA!</b>	<b>OBA!</b>	Ez horixe!, ka!, Bai zera! (eta antzekoen parekoa).
<b>OBUAN EGON</b>	<b>OBUE OBO(E)N EGON</b>	Zerbait jausi ez jausi egon edo ibili. "Obuan dabil": justu-justu dabil, "balanceándose".
<b>OHIDALEZ</b>	<b>OIDALES</b>	Nahiko ondo. "-Zelan zabilz? -Ohidanlez". "Ohi dan legez" formaren batuketa, beti bezala ibiltea seinale ona da antza.
<b>OHIDALANGOA</b>	<b>OIDALUA, OIDALOA</b>	Nahiko ona.
<b>OIN</b>	<b>OIÑ</b>	Orain.
<b>OINATZ(AK)</b>	<b>OIÑATZAK, OÑETZAK</b>	Lorrazak, pausua emondakoan ixten dan arrastoa.
<b>OLGAU</b>	<b>OLGEU, OLGU</b>	Jolastu.
<b>ORTOZIK</b>	<b>ORTOSIK</b>	Oinutsik.
<b>OSTANTZEAN</b>	<b>OSTANTZEAN</b>	Bestela, ezpabere. "Karraderan joan beharko dot, ostantzean galdu egingo dot autobusa"

OT(e)A



OTIA

- 1) Basoko landara mota bat. "Argoma".
- 2) Oiloak lo egiteko tokia.

<b>PALATU(A)</b>	<b>PALATUE</b>	Ugazaba biren basoak bereizteko egiten dan karkabea, munea, zuloa.
<b>PAPAO(A)</b>	<b>PAPAU</b>	Ergela, kokoloa, inozoa.
<b>PARAJE</b>	<b>PARAJE</b>	Hur, hurbil.
<b>PARTIK(e)A</b>	<b>PARTIKIE</b>	Gurdiaren palua.
<b>PATINA</b>	<b>PATIÑE</b>	Ura ateratzeko lurtean egiten dan zuloa.
<b>PATXAD(e)A / FATXADA</b>	<b>PATXADIA/FATXADIA</b>	Itxura.
<b>PEKOROTZ(A) / BEKOROTZ(A)</b>	<b>PEKOROTZA/BEKOROTZA</b>	Behiek egindako kaka, "Behi+korotza"
<b>PIPERTUTA</b>	<b>PIPERTUTE</b>	Haserretuta. "Piper" hitzetik dator, batzuetan pikatu egiten dau-eta.





# ZELAN IDATZI? ZELAN ESATEN DOGU?

# ESANGUREA ESANGUREA

<b>PIRRI(A)</b>	<b>PIRRIE</b>	1) Pertsona larria , urduria, ipurterrea (ondoko adieratik eratorria). 2) Kaka-zirina, kaka biguna.
<b>PITIN BAT</b>	<b>PITIN BET</b>	Apurtxu bat, gitxi, areantxu.
<b>PITIPIN(A)</b>	<b>PITIPINĒ</b>	Freskagarri bat. Txakolina egin ostean, lotzen dan mahatsari ura botata ateraten dana.
<b>PITXILOTA</b>	<b>TXIRPILOTA</b>	Tximeleta.
<b>PLATERA GARBITU</b>	<b>PLATERA GARBITU</b>	Dan-dana jan.
<b>POLI</b>	<b>POLI</b>	Pertsona bat aipatzeko. “Bai, poli”. “Polit” hitzetik etorri leiteke.
<b>POPERREKA</b>	<b>POPARRAKA, POPERREKA</b>	Astoa ostikadaka ibiltea; pertsona bat irainka, zarataka ibiltea (aurrekoaren erabilera-esparrua zabalduta).
<b>PORASUZ</b>	<b>PORASUS, PODASUS</b>	Poderioz. “Denporearen porasuz horrek bere amaitu dau bere beharra”.
<b>POSPOLIN(A)</b>	<b>POSPOLINĒ</b>	Eperra.
<b>PRAKERRE(A)</b>	<b>PRAKERREA</b>	Iraina da, batzutan ezizena. Pertsona minbera, ipurterrea, saputina, pirria.



**-RIK HARA**

**-RIK ERA**

Denporazko “barri” berbearen zentzua dauka. “Garbirik harako erropak”, “sartenerik hara”, “labarik harako ogia”, “Oherik harako itxurea”, “Oherik hara nago”.



**SANO**


**SANO**

Oso, txit. “Sano ondo egin dozu”.

<b>SAPAZTO(A)</b>	<b>SAPASTOA</b>	Ule luze desordenatua daukanari esaten jako. “Sapa”, izatez, (b)uztarria babesteko jartzen dan ardi-ulea da.
<b>SARD(e)A</b>	<b>SARDEA</b>	Bedarra batzeko tresnea.
<b>SASI-ESKOLA</b>	<b>SASI-ESKOLA</b>	Piper (egin). Gazterazko “pira”.
<b>SASTEGIA</b>	<b>SASTEGIE</b>	Etxaurreko gunea.
<b>SATS EGINDA</b>	<b>SATS EGINDA</b>	Sano nekatuta, apurtuta.
<b>SEKULA EZ</b>	<b>SEKULE ES</b>	Inoiz.
<b>SEKULA BEDAR(RA)</b>	<b>SEKULU/ SEKULE BEDARRA</b>	Bedar mota bat, hirusta gorria.
<b>SIDURRI(A)</b>	<b>SIDURRIA</b>	Arrasto, aztarna. “Sidurrik bere ez”: “ ni rastro”. “Sidurriak batu”: “datuak batu, arrastoari jarraitu”. “Hori beti ibiltzen da inoren sidurriak batzen”.
<b>SIKERAN</b>	<b>SIKERAN</b>	Behintzat, gitxienez.
<b>SOKORRUKA</b>	<b>SOKORRUKA</b>	Oihuka.



**ZELAN IDATZI?****ZELAN ESATEN DOGU?****ESANGUREA**  
**ESANGUREA**

<b>SOR EGON</b>	<b>SOR EGON</b>	Torpe egon, mobiduteko arazoak izan.
<b>SORKI(A)</b>	<b>SORKIE</b>	Suetean edo ezkaratzean erabilten dan trapua.
<b>SUGANDILA</b>	<b>SAGUTXILE, SUGELINTXE, SUGUNTXILE</b>	Sugandila, sugelandara. 
<b>SURZILO(A)</b>	<b>SURTZILLOA, SUNTZILLOA</b>	Sudur ziloa edo zuloa.
<b>SUSTER(RAK)</b>	<b>SUSTERRAK</b>	Sustraiak.
<b>SUETEA</b>	<b>SUTEA</b>	Sukaldea, eskaratza.

<b>TAKET(A)</b>	<b>TAKETA</b>	Hesia egiteko postea. Egur zati luzanga eta arteza. "Taketa lez egon": gogor egon, osasuntsu egon.
<b>TANK(E)A</b>	<b>TANKEA, TANKALEA</b>	Pote, tanga
<b>TANKIN(A)</b>	<b>TANKIÑE, KANTIÑE</b>	Likidoak eroateko ontzia. Gaztelaniazko "cantina"ren metatesia da.
<b>TANTAI(A)</b>	<b>TANTAIE</b>	1) Arbolearen adarrik artezena. 2) Altu-altua.
<b>TARDANTZ(e)A</b>	<b>TARDANTZEA</b>	Mutiko edo neskatila gaztea etxean eduki nahi ez danean auzokoarenera "tardantza" bila botaten da, izan ez da ezer, bertan gelditzeko amarru bat baino; auzokoak ondo ulertzen dau umea bere ondoan euki behar dauela denbora batez. "Tira, umeok, zoaze bestaldera eta esaiozue tardantzea emoteko".
<b>TARRATAD(e)A</b>	<b>TARRATADEA</b>	1) Oihaletan egiten dan urradurea. 2) Erropeak apurtukeran egiten dauen zaratea. 3) Uzkerraren zaratea. (Aurreko adieratik zabaldua).
<b>TATARREZ</b>	<b>TATARRES</b>	Narras, arrastaka.
<b>TAUKI</b>	<b>TAUKI</b>	1) Gauzak txikitzekeo egurra. "Picador". 2) Aulkia.
<b>TIRA TIROK/ TIROZU / TIROZUE</b>	<b>TIRE TIROK/ TIROSU/ TIROSUE</b>	Pertsona bati zezortan arin ibilteko esaten jako. "Tirozu, prisaz nabil eta". Besteak esaten dauena neurri baten onartzen dala esateko bere erabilten da: "Tira, ba, gogo handirik ez daukat, baina goazen".
<b>TOTOA EGIN</b>	<b>TOTOA EGIN</b>	Auzolana egin osteko jana edo alborokea.
<b>TRABES</b>	<b>TRABES</b>	Aldrebes, oker(retara). Txarto.
<b>TRENTIN(A)</b>	<b>TRENTIÑE</b>	Ganorea, pertsona batek daukan abiadura. "Trentin eskasa dauko horrek beharrean"; "Trentinbako hutsa da".






# ZELAN IDATZI? ZELAN ESATEN DOGU?

# ESANGUREA ESANGUREA

<b>TRILAU</b>	<b>TRILLEU</b>	Gutziz apurtu, suntsitu, sats eginda itxi. Gaztelaniazko “trillar”etik.
<b>TRIPAZORRI(AK)</b>	<b>TRIPASORRIEK</b>	Gosea danean tripek egiten daberen zaratea eta kili-kilia.
<b>TRONBIL(A)</b>	<b>TRONBILLE</b>	Troinua, korapiloa, anbulua.
<b>TRUKUTZ(A)</b>	<b>TRUKUTXE, TRUKUTXA</b>	Trongoa, kirtena; arbolea ebagiten danean lurrari lotua geratzen dan zatia.
<b>TUNTUR(RA)</b>	<b>TUNTURRE</b>	Laua dan gauza batetik ateraten dan tontortxua.
<b>TUTUBIOTU</b>	<b>TUTUBIOTU</b>	Buruz nahastu, arrazonamenduetan nahastu. Azkuerena ustez, “burubiotu” formaren aldakia da.
<b>TUTU(A)</b>	<b>TUTUE</b>	Eperdia, atzeko partea (kolokiala).
<b>TXAKUR-AMES(ET)AK EGIN</b>	<b>TXAKUR-AMES(ET)AK EIÑ</b>	Errealidadetik asago dagozan pentsamenduak izan.
<b>TXAKUR-EZTULA</b>	<b>TXAKUR-ESTULE</b>	Eztul txarra, eztul sikua.
<b>TXANK(e)A</b>	<b>TXANKEA</b>	1) Hankea. 2) Sota (karta jokoan).
<b>TXANKILA</b>	<b>TXANKILLE</b>	Ahula eta argala.
<b>TXANTEL(A)</b>	<b>TXANTELA</b>	Txartela, billetea. Treneko txantelak jolaseko trukeetarako erabilten ziran: txantel berdeak bat balio eban eta urdinak bi.
<b>TXAPIN(AK)</b>	<b>TXAPIÑEK</b>	Galtzerdien antzeko oinetako batzuk. Kaderak babestekoak.
<b>TXATXAL(e)A</b>	<b>TXATXALEA</b>	1) Sustantzi handirik ez daukan pertsona, neskea. 2) Alua (emakumearen sexu organua).
<b>TXATXAMARKA EGIN</b>	<b>TXATXAMARKA EIÑ</b>	Atzamarka egin.
<b>TXIKER(RA)</b>	<b>TXIKER(RA)</b>	Txikia.
<b>TXILIN(A)</b>	<b>TXILIÑE</b>	1) Kanpai txikia. 2) Umearen pitilina.
<b>TXIMUR(RAK)</b>	<b>TXIMURREK</b>	Zimurrak, azalaren tolesdurak.
<b>TXINBO(AK)</b>	<b>TXINBO(AK)</b>	Umeak olgetako zabua, kolunpioa.
<b>TXIRI-TXIRI</b>	<b>TXIRI-TXIRI</b>	Astiro, geldiro, apurka-apurka (mobimentua).
<b>TXIZTIL(A)</b>	<b>TXISTILLE</b>	1) Tanta. “Euri-txiztilak” 2) “Bapere ez” (ezezko enfatikoetan) . “Ez dau txintilik ulertu”: “ez dau brintzik ulertu “, “ez dau piperrik ulertu”.





<b>TXIXILU(A), ZIZEILU(A)</b>	<b>TXIXILUE, TXITXILUE</b>	Sueteko jesarlekua, atzeduna.
<b>TXOKIN(A), ZOTIN(A), TXOTEN(A)</b>	<b>TXOKIÑE</b>	Zotina.
<b>TXOLIN(A)</b>	<b>TXOLIÑE</b>	Buru arina.
<b>TXOMIN-BEDAR(RA)</b>	<b>TXOMIN-BEDARRA</b>	Ortuan ateraten dan bedar txarra; kendu arren bere, segiduan atzera urtetan dauena.
<b>TXORROTAD(e) A</b>	<b>TXORROTADEA</b>	Likido apur bat.
<b>TXORT(e)A</b>	<b>TXORTEA</b>	1) Batuzko "sorta", eskukadea. 2) Koletea.
<b>TXOR-TXOR</b>	<b>TXOR-TXOR</b>	Berbetan isildu barik.

<b>UGARAXO(A)</b>	<b>UGASIOA, URGERIXO</b>	Algel txikia.
<b>UGAL(A)</b>	<b>UGELA, UBELA</b>	1) (Uhala) narru zati luzea. 2) (Uhala) narruzko garrikoa; "ugala": "garriko ugala". 3) Autoko jesarlekuari lotzeko garrikoa.
<b>UGAZABA; UGAZABANDREA</b>	<b>USABA; USABANDREA</b>	Jabea, nagusia, agintaria.
<b>UGERDO(A)</b>	<b>UGERDOA</b>	Pertsona lohia, zikina, desatsegina. Irain gogorra da. "Uger" berbatik dator.
<b>UGER(RA)</b>	<b>UGERRA</b>	1) Zikina, lohia. 2) Landareen gaizoa, gorrina. "Mildiu". 3) Herdoila.
<b>UGERTU</b>	<b>UGERTU</b>	Ugerrak jan, herdoildu.
<b>UME MIK(e)A</b>	<b>UME MIKEA</b>	Misketua, mainontzia.
<b>UNEKAD(e)A</b>	<b>UNEKADEA</b>	1) Sasoi bat(ean), aldikadea. 2) Gune, tarte, unada. "Alkondara horrek zelango zuri-unekadak daukoz?"
<b>UREGARRI</b>	<b>UREGARRI</b>	Ura edateko gogoz.
<b>UPEALAKO(A)</b>	<b>EUPELAKO</b>	Itzela, sano handia. Iparraldean animaliakoa.
<b>URRATU</b>	<b>URRUTU</b>	Zerbaiti azaleko zauria egin. "Ahotsa urratu": berba egin ezinik egon.
<b>URRATU(A)</b>	<b>URRUTUE</b>	Zauria; erropako tarratada txikia.
<b>URTARRILA, ZEZEILA, MARTIA, APIRILA (JORRAILA), MAIATZA (ORRILA, LORAILA), BAGILA, GARAGARRILA, ABUZZUA (DAGONILA), IRAILA, URRIA (URRIETA), ZEMENDIA, ABENDUA (GABONILA)</b>	<b>URTARRILLE, SESILLE, MARTIE, APRILLE (JORRAILLE), MAIETZA, (ORRILLE, LORAILLE), BAGILLE, GARAGARRILLE, DAGONILLE, IR(A)ILLE, URRIE, SEMENDIE, ABENDUE (GABONILLE)</b>	Hileen izenak.
<b>UZTARKU(A)</b>	<b>SUSTRUJUE</b>	Ortzadarra, erromako zubia, ostarkua, ostadarra.






# ZELAN IDATZI? ZELAN ESATEN DOGU?

# ESANGUREA ESANGUREA

ZAHAGI(A)	SAGIA	Ardaoa gordeteko narru nagusia.
ZALDAR(RA)	SALDARRA	Pikor, garau, handitua.
ZANATENES	SANATENES	Errezuz eta bedarrez egiten dan sendatze prozesua. Beste leku batzuetan: "santiretu" edo "santigitu".
ZARAN(A)	SARANA	Baserri munduan bedarra eta antzekoak batzeko erabilten dan otzara sakona.
ZARRANTZ(e)A, TXARRANTX(e)A	SARRANTZEA	Ganadua garbitzeko eskula. Pertsona latza eta grazia bakoa danean bere esaten joko: "Zarrantzea langoa da".
ZARRAZOI(A)	SARRASOIA	Behe-lainoa, laino itxia.
ZATAR(RA)	SATARRA	Gaiztoa, lohia.
ZERKOR(RA)	SEKORRA	Behiaren arra, baina gaztea.
ZELEMIN(A)	SELEMINE	Neurri txikia, batez bere garia eta artoa neurtzeko. Arabeeek ekarritakoa ei da eta, sasoi baten, Gaztelan bere erabiltzen zan.
ZENTEILA	SENTALLEA	Barrabana. "Zenteila lupuok!". "Zenteila-hotsean joan zan= arin-arin, andaran".
ZILO(A)	SILLOA	Zuloa.
ZINTZ EGIN	SINTZ EGIN	Mokoak kentzeko indarra egin.
ZOHI(A)	SOIA	Lurraren goiko partea, edo geruza.
ZORROZTARRI(A), ZORROTZARRI(A)	SORROSTARRIE	Kodainea zorroztuteko harrizko tresna.
ZOTZIK ALBORA (EGIN EZ)	SOTZIK ALBORA (EiÑ ES)	Lanik ez egin. Gaztelerazko "(no dar) ni golpe". "Horrek goiz osoan ez dau zotzik albora bere egin".
ZURITU	SURITU	Azala kendu.
ZURRUT	SURRUT	Edateko modua (Tragoa, zopa-edo koilararik gabe hartzea).
ZUHURTU	SURTU	Izartu.
ZULDARRA	SULDARRA	Animaliei batzuetan sortzen jaken gatxa: Garoa da eta heltzen danean harrak urteten dau bertatik.
ZURTZ EGINDA	SURTZ EINDA, SURTZ INTXE	Harrituta.
ZUZU(A) /TXUTXU(A)	SUSUE	Zeozeren gogoa (izan). "Beti dabil kotxe barriren zuzuan".









Mungiako  
ikastetxeak



MUNGIA  
UDALA *astione*



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia  
Kultura Saila  
Departamento de Cultura